

# KATTALINGUNE **LGTBI+**

Servicio de Atención Integral para las personas LGTBI+ del Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernuaren LGTBI+ pertsonen arreta integrala emateko zerbitzua



**LGTBI+**

*PERTSONEI*

*ARRETA*

*INTEGRALA*

*EMATEKO*

*ZERBITZUA*

Gobierno  
de Navarra  Nafarroako  
Gobernua



Instituto  
Navarro  
para la Igualdad



Nafarroako  
Berdintasunerako  
Institutua

# NOR GARA?

**Arreta integraleko zerbitzu publiko** bat gara, **sexu- eta genero-aniztasunean espezializatua**, eta arreta zuzena ematen diegu **LGTBI+ pertsoneri; baita haien familiei eta haien hurbilekoei ere**.

Gainera, aholkularitza eskaintzen diegu hainbat profesionali (besteak beste, hezkuntza-, osasun- eta gizarte-esparruetakoei).

**Zerbitzu konfidentziala, doakoa eta hurbila** eskaintzen dugu.

# ZER LAGUNTZA JASO DEZAKEZU GUREGANDIK?

**Diziplina anitzeko lantaldea** dugu, psikologiako, gizarte-laneko eta esparru juridikoko profesionalak osatua.

**Esperientzia handia** dute sexu- eta genero- aniztasunaren arretan.

## Informazioa, harrera eta lagun-egite soziala

Zerbitzuan sartzeko atea da. Hor **zure beharrak baloratuko dira**, informazioa emanen dizugu eta, zure eskaera ikusita, baliabide egokienetara bideratuko zaitugu.

✓ **Eskura dauden gizarte-baliabideei** buruzko informazioa, orientazioa eta aholkuak ematen ditugu.

✓ **Zerbitzuaren baliabide propioetara** edo kanpoko baliabideetara bideratuko zaitugu.

✓ **Banakako arreta** ematen dugu.

## Arreta psikologikoa eta sexologikoa.

**Arreta ematen diegu** LGTBI+ pertsoneri eta haien ingurune hurbilak (senideak eta hurbilekoak) **izan ditzaketen premiei**, sexu- orientazioagatik, genero-adierazpenagatik eta sexu-edo genero-identitateagatik.

✓ **Familiekin edo hurbileko pertsonekin esku hartzen** dugu, sexu- edo genero-aniztasunak eragindako egoerak **prebenitzeko eta egoera horietan laguntzeko**.

✓ **Lagun-egite emozionala**, espazio atsegina eta konfidentzial batean.

## Arreta Juridikoa

- ✓ Informazioa eta aholkuak emanen dizkizugu, **LGTBI+ pertsonen eskubideei buruz.**
- ✓ Informazioa eman eta lagun-egiten diegu **gorroto-delituen biktimei**, sexu-orientazioagatik, genero-adierazpenagatik, eta sexu- edo genero-identitateagatik egin diren delituen kasuan.
- ✓ Aholkuak emanen dizkizugu, sexu-edo genero-aniztasunarekin lotutako **gai juridikoetan.**
- ✓ Aholkuak ematen dizkiegu **nazioarteko babes-neurriak** eskatzen dituztenei, arrazoa sexu-orientazioa, genero-adierazpena eta sexu- edo genero-identitatea denean.

## NOLA JAR NAITEKE ZUEKIN HARREMANETAN?

Gure lantaldearekin harremanetan jarri nahi baduzu, gure bulegoetara etortzea da aukera bat; bestela, telefonoa edo, zuzenean, posta elektronikoa erabil dezakezu. Zerbitzuak bost bulego ditu, Nafarroa osoan banatuta.

### Iruña

- 📍 Fuente del Hierro kalea 2-behea
- 🕒 Goizez: 10:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera
- 🕒 Arratsaldez: 16:00etatik 18:00etara, asteartetik ostegunera

✉ [kattalingune@kattalingune.org](mailto:kattalingune@kattalingune.org)  
☎ 948 229 149 ☎ 667 528 466

### Tutera

- 📍 Rua kalea 33 (La Rua gizarte-etxea)
- 🕒 Astearte guztietan, 10:00etatik 18:00etara

✉ [ribera.erribera@kattalingune.org](mailto:ribera.erribera@kattalingune.org)  
☎ 617 384 932

### Irurtzun

- 📍 San Migel kalea 7 (Kultur etxea)
- 🕒 bi asteartean behin, 10:00etatik 18:00etara.

✉ [iparmendebaldea@kattalingune.org](mailto:iparmendebaldea@kattalingune.org)  
☎ 678 266 865

### Tafalla

- 📍 Hortanco kalea z/g (Kulturgunea)
- 🕒 Bi ostegunean behin, 10:00etatik 18:00etara

✉ [zonamedia.erdialdea@kattalingune.org](mailto:zonamedia.erdialdea@kattalingune.org)  
☎ 747 412 772

### Lizarra

- 📍 Sorkunde Garbiaren pasealekua 1 (Lizarrako Udaletxea)
- 🕒 Bi ostegunean behin, 10:00etatik a 18:00etara

✉ [tierraestella.lizarraldea@kattalingune.org](mailto:tierraestella.lizarraldea@kattalingune.org)  
☎ 747 413 786